

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxepi Letona Badiola

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1944)*

Aurkibidea



Biografia



Josefina -Joxepi lagunentzat- Eskoriatzako Marine auzoan jaio zen, Zabale baserrian. Guraso biak auzokoak ziren. 8 senide ziren. Auzoko eskolan ibili zen eta 16 urterekin Arrasateko eskola profesionalera joan zen, interna. 22 urte zituela, familia guztia Arrasatera joan zen bizitzera. Fagorren ibili zen lanean. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Inma Gaztañaga lagun eta lankidearekin batera. Joxepiri guraso biek hika egiten zioten eta anai-arrebekin hika egiten du. Seme-alabei ere hika egiten die.

Zintak

ARR-201

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-05-22
- **Iraupena:** 108 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Zeinekin aritzen diren hika

- **Erref:** ARR-201/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:18:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Nagusiei eta senarrari zuka egin izan die; errespetu falta zen hika egitea. Joxepik bilobekin hika egiten du; haiek ere bai berari. Inmak alabarekin tratua egin zuen elkarri hika egiteko, alabak praktikatu ahal izateko.

2. Hika zeinekin egiten zuen umetan

- **Erref:** ARR-201/011
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:22:32. **Bukatu:** 00:24:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoek seme-alabekin hika egiten zuten, baita lagunekin eta ere. Eskolako lagunekin hika egiten zuen, eskola barruan erdaraz. Umetako pasarte batzuk kontatzen ditu.

3. Arrasaten ia denekin erdaraz

- **Erref:** ARR-201/012
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:24:58. **Bukatu:** 00:28:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hamasei urterekin eskola profesionalera joaten hasi zen. Ordurako batera eta bestera ibiltzen zen. Bere auzokoarekin hika egiten zuen baina gainontzeko ikasleekin erdaraz.

4. Kaletik etxera erdara eramaten zuten umeek

- **Erref:** ARR-201/013
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:31:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Eskolan eta kalean erdaraz ikasi eta etxera erdaraz joatea ohikoa zen. Inmak pasarte bat kontatzen du.

5. Hika, ondo egiten zuenarekin

- **Erref:** ARR-201/015
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:33:23. **Bukatu:** 00:35:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Fagorren lan egin zuten elkarrekin eta han egin ziren lagun. Hika egiten zuen ondo zekienarekin.

6. Neskei eta mutilei hika

- **Erref:** ARR-201/017
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:37:41. **Bukatu:** 00:40:31

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Mutilek neskei hika egiten ez dakitela dio Joxepik. Inmak berak egin izan dio biloba bati hika, mutila izanda, eta besteari zuke, neska izanda.

7. Marin auzoan hika galdu egin da

- **Erref:** ARR-201/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Beraien gazte garaian baserri auzoetan hika egiten zuten. Eskoriatzako Marin auzoan hika galdu egin dela dio Joxepik.

8. Lehenengo erlojua izan zutenekoa

- **Erref:** ARR-201/022
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:48:56. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Duela hirurogeita hamar urte moduan bizi nahiko luke Joxepik urtebetez. Lehenengo soldatarekin erlojua erosi zuen Joxepik. Inmak opari jaso zuen erlojua eta itsasoan bainatuta, hondatu.

9. Euskara galdu zutenekin mintzapraktikan

- **Erref:** ARR-201/025
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:56:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Mintzapraktikan jarduten du Joxepik. Bere bi taldekideek euskara galdu egin zuten. Zer dela eta gertatu den hori azaltzen dute.

10. Mutilekin eta senarrarekin zela hitz egiten duten

- **Erref:** ARR-201/026
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:19. **Bukatu:** 00:57:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Inma eta bere senarrak hasieran erdaraz egiten zuten elkarrekin. Joxepik hika egin izan die beti bere adineko mutil eta gizona. Inmak senarrarekin bietara egiten du orain, euskaraz eta erdaraz, nahastean.

11. Baserritarrak izatearren zapalkuntza

- **Erref:** ARR-201/029
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:59:28. **Bukatu:** 01:02:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Arrasaten euskara atzeratuen kontutzat hartzen zela dio. Baserritarrak izatearren jasan zituzten zapalkuntzez berba egiten dute.

12. Hikak konfidantza eta gertutasuna ematen ditu

- **Erref:** ARR-201/031
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:03:04. **Bukatu:** 01:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hikak konfidantza edo gertutasuna ematen duela diote, taldetu egiten duela. Euskaraz oso ondo egiten duenarekin hikara pasatzen dira berehala.

13. Telefonorik gabeko garaia

- **Erref:** ARR-201/040
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 01:24:34. **Bukatu:** 01:28:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefono gabeko garaiaz ari dira. Medikua bila joan egin behar izaten zuten bertara. Zerbait gertatutakoan, abisua etxe guztietara eramaten zen. Telefonoaren etorreraz hitz egiten du Joxepik. Telefono mugikorrarekin lehenengoz norbait ikusi zueneko kontatzen du Inmak.

14. Telefonoaren beldur

- **Erref:** ARR-201/041
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 01:28:52. **Bukatu:** 01:30:19

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefonoa bestaldera hartu zuen bati buruzkoak kontaktzen ditu Joxepik. Telefonoari beldurra ziotenekoak kontaktzen du Inmak.

15. Arropa garbitzea lan nekeza

- **Erref:** ARR-201/042
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:30:19. **Bukatu:** 01:32:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak garbitzea lan handia zela diote; amandreek zela garbitzen zituzten kontaktzen dute.

16. Baserritar izatearren konplexua eta euskaltzasuna

- **Erref:** ARR-201/045
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:40:43. **Bukatu:** 01:43:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Inmak "casera" esatearren konplejua izan izan du. Amak euskara barruraino sartu ziela dio Joxepik. Euskaraz irakurtzearen zoriondu egin zuen behin irakasle batek Joxepi.

17. Umetako jolasak

- **Erref:** ARR-201/046
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:43:44. **Bukatu:** 01:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Joxepik txirikilan jolasten zuen; Inmak ez. Elizan gizonak eta emakumeak aparte egoten ziren. Inmak mutilekin jolasten zuen. Joxepik jolas asko ditu gogoan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com